



bertsolari/zaleentzat  
"INPROBISAZIOA ETA UMOREA ESKENAN"  
TAILERRA

- Virginia Imaz eta Jose Carmelo Muñoz -  
(Oihulari Klown)

**Datak:** **ekainaren 28tik 30era**, Bergarako Aibar baserrian (Oihulari Klown taldearen aterpetxea).

**Iraupena:** **25 orduko** ikastaroa da, 3 eguneko egonaldi intentsiboan gauzatuko dena. Bost orduko saioak egingo dira.

1. saioa: ostiral arratsalde. 17:00-22:00etara
2. saioa: larunbata goiz eta arratsalde. 10:00-15:00 // 16:30-21:30
3. saioa: igandea. 10:00-15:00 // 16:30-21:30

**Partaideak:** **bertsolari zein zaleak, 14 kide**

**Ikastaroaren edukia:**

Ikastaro hau, gure baitako komikotasuna bilatzeko abenturan bidelagun izan nahi duten **bertsolari/zaleei** proposatzen diegu. Klown inprobisazioan dugun esperientziaren arabera, ikastaroan proposatuko ditugun ariketak bertsotan inprobisatzeko lagungarri izango direlakoan gaude. Hainbat alor landuko ditugu: **entzutea, metafora, disponibilitatea, arnasa, literalak, sortzeko jarioa, huts egiteen kudeaketa, hutsuneetatik irteteko estrategiak, gorputza errekuiperatzea**, eta abar.

Gure lan moldeak **klowna espresio ekintza gisa** ulertzen du batik bat, eta espresio ekintza horren bidez **norberak bere baitan duen Auguste** pertsonaia tradizionala bakoitzak bere-berea duen **modu bakanean** garatzea nahi du. Ikastaro honen helburua dibertitzea da, gure entzumena hobetu eta inprobisatzeko errekurtsio gehiago eskuratzen ditugun bitartean. Bidaia honek **nork bere buruaz eta egunerokotasuneko korapiloaz umorea** egiteko prestutasun osoa eskatuko digu: tikak, obsesioak, maniak, desioak, beldurrak... Guzti hori ez dago **garena uste dugun horretatik** hain urrun. Pertsona guztiok **auto-inportantzia** zerrenda luze bat erakusten - edo ezkututzen- saiatzen baikara. Gure barneko pailazoaren komizitateak horietan ditu bere sustraiak eta bere fruiturik behinenak. **Senekak zioen bezala, bere buruaz barre egiten duena ez da inoiz barregarri geldituko.**

**Metodologia:**

Metodologia **dinamiko eta parte-hartzailea** izango da. **Beroketa fisiko eta emozionalerako** ariketak egingo dira; **inprobisazio uneak** egongo dira, tartean **klown inprobisazioak eta ahots inprobisazioak** (bertsoak eta ez bertsoak). Eta **bizitako horretatik berrelikatzeko denborak** egongo dira, klown kodearen hainbat aspektu tekniko jorrazteko bide ematen baitute.

**Aurreko ediziotan parte hartu duten kideak etorri ezkeru dinamika eta ariketa berriak planteatuko dira.**

**Hizkuntza:**

Ikastaro **emaileek gazteleraz** hitz egingo dute, eta **partaideek euskaraz** inprobisatu, jolastu eta galdetuko dute.



## TAILERREAN IZEN EMATEA

**Izena emateko epea:** **apirilaren 11tik maiatzaren 5era**

**Matrikula (25 ordu) eta egonaldia (jana eta loa): 100€**

\*Bertsozale Elkarreak lagundutako ekimena da (partaideko kuotaren erdia lagunduko du Elkarreak)

**Taldea osatzea:** izena emateko ordena hartuko da kontutan, eta emakume eta gizonen arteko oreka zainduko da

**Izen-ematea/ Informazioa:** [umorez@bertsozale.com](mailto:umorez@bertsozale.com) /(+34) 943 694 277.

